

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	BANAKETA KAPILARRA	Iraupena	70
Kodea	MF1012_3		
Lanbide-arloa	Merkataritza eta Marketina.		
Lanbide-eremua	Merkataritza-logistika eta garraioaren kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Garraioaren eta banaketaren antolamendua	Maila	3
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Distantzia luzeko garraioa	Iraupena	90
	Logistika-katearen optimizazioa (zeharkakoa)		90
	Ingeles profesionala nazioarteko logistika eta garraiorako (zeharkakoa)		90
	Garraioaren antolamendu eta banaketako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1012_3 Salgaien banaketa kapilarra antolatu, kudeatu eta kontrolatzea.

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Banaketa kapilarreko sistema bat zehaztea, salgaien banaketa-zerbitzua bermatzeko behar diren baliabideak aztertuz.
- EI1.1 Salgaiak banatzen dituen enpresa edo sail baten baliabide fisikoak eta antolamendu-baliabideak deskribatzea, bereziki azpimarratuz flotaren antolamendua edo ustiaketa- edo trafiko-zerbitzu edo -sailaren banaketa-operazioak.
- EI1.2 Logistika-enpresa edo -sailen eta/edo salgai-banaketaren, paketeriaren eta logistika-operadoreen esparruko enpresa edo sailen ezaugarri espezifikoak azaltzea.
- EI1.3 Norberaren edo besteren ibilgailu-flotaren dimentsio optimoa ezartzeko irizpideak azaltzea, kontuan hartuz eremua, salgaien bolumena eta banaketa-zerbitzuaren beharrak.
- EI1.4 Banaketa-enpresen sektoreko oinarrizko ezaugarriak identifikatzea, hau da, banatzaile eta azken banatzaile autonomoak eta banaketa kapilarreko merkaturatze-ereduak.
- EI1.5 Behar bezala zehaztutako kasu batean, behar diren ibilgailuen kopurua argumentatzea (norberarenak edo besterenak, eskusiboki hartuak edo noizbehinka), kontuan hartuz salgaien pisua, bolumena eta ezaugarriak, puntualtasuna eta garraio-epea, banaketa kapilarren kostua justifikatuz.
- EI1.6 Behar bezala zehaztutako kasu batean, eskaini beharreko banaketa-zerbitzuaren beharrak eta ezaugarriak kontuan hartuz, zerbitzuaren kalitatea eta kostuak optimizatzeko behar diren ibilgailu-motak eta ibilgailu-kopurua zehaztea, era askotako informazioa erabiliz: kostua, denborak, salgaien edo zerbitzuaren eskakizun espezifikoak, kalitatea eta abar.
- EI1.7 Trafiko, ordutegi, gas-kutsadura, zarata eta hondakinen alorrean udal araudiek ezarritako mugak identifikatzea, baita ahultze- edo moteltze-elementu eta -ekipo ohikoenak ere, banaketa-flotako ibilgailuek isuritako gas kutsakorrei eta sortutako zaratei buruzko txostenak interpretatuz.
- EI1.8 Ibilgailuen eta zamalanetako elementu osagarrien mota, ezaugarri eta eskakizunak deskribatzea, banaketa kapilarren arabera, zerbitzua optimizatzeko.
- EI1.9 Salgaien tipologiari buruzko araudia interpretatzea, haien garraiorako behar diren eskakizun guztiak bete daitezen.
- EI1.10 Jasotzeko eta entregatzeko puntuak, salgaien ezaugarriak eta epe eta ordutegien espezifizioak behar bezala zehaztuta dituen zerbitzu batean:
- Garraiatu beharreko salgaiei aplikatu beharreko araudi teknikoak identifikatzea.
 - Banaketarako behar diren ibilgailu-motak eta gidari edo laguntzaileak zehaztea.
 - Banaketa-ibilgailuan zamalanak egiteko eta salgaiak kokatzeko behar diren elementu osagarriak deskribatzea.
- A2: Salgaiak banatzeko behar diren arau, baimen eta dokumentuak interpretatzea, baita horiek ez betetzeagatik zigorrek ere.
- EI2.1 Salgaien errepide bidezko trafikoaren araudi erregulatzaila interpretatzea, salgaien banaketa kapilarrean eskatzen diren dokumentuei buruzko araudia zehaztuz.
- EI2.2 Salgaiei eta garraio-zerbitzua egiteari buruzko dokumentuen helburua azaltzea: baimenak, gaikuntzak, aseguruak, ibilgailuen baimen eta ikuskapenak eta kontrol-dokumentuak.
- EI2.3 Ibilgailu eta salgaien garraiorako material gurpildun zehatz batzuen ezaugarri teknikoak eta baimen edo ekipo bereziei buruzkoak deskribatzea, indarrean den araudia aztertuz.
- EI2.4 Salgai arriskutsu eta galkorren, animalia bizien eta beste salgai berezi batzuen hiri barruko lurreko garraioaren araudia aztertzea, baita ibilgailuak egokitzeko eta operazio horietan parte hartzen duten langileak trebatzeko hartu beharreko neurriak ere.

- EI2.5 Lurreko garraioari dagozkion lege-eginbeharrak ez betetzeagatik aplikatzen den zigor-prozedura deskribatzea, lurreko garraioaren ikuskapen-zerbitzuen funtzioak eta eskumenak aztertuz.
- EI2.6 Gidaldiak eta atsedendialdiak kontrolatzeko metodoak deskribatzea, zehatzuz gidariaren eta enpresaren eginbeharrak, batetik, eta aplikatu beharreko araudia ez betetzeak dakartzan ondorioak, bestetik.
- EI2.7 Indarrean den araudiaren arabera, garraioa egiten duen enpresak eta haren bezeroek euren jardunean eta lurreko garraioaren ikuskapen-zerbitzuen aurrean dituzten eginbeharrak azaltzea.
- EI2.8 Behar bezala zehaztuta dagoen kasu batean, non errepede bidezko banaketa-zerbitzua egitean hainbat urratze egin baitira:
- Urratzeak sailkatzea, larritasunaren arabera, indarrean den araudiari jarraikiz.
 - Araua ez betetzeagatik erator litezkeen erantzukizunak eta zigor posibleak ondorioztatzea.
- A3: Ibilgailu eta gidari bakoitzarentzako bide-orriak prestatzea, ondoko hauek kontuan hartuta: salgaiak jasotzeko eta entregatzeko kondizioak, eremu jakin bateko epe erabilgarriak, hiri edo eremu geografiko jakin bateko biltegi-sarea edo salmenta-puntuak.
- EI3.1 Bideak planifikatzeko dauden metodoak deskribatzea, bakoitzaren egokitasuna adieraziz salgaien ezaugarrien, zerbitzuaren, distantziaren, denboraren eta kostuaren arabera.
- EI3.2 Eremu zehatz bateko salmenta- edo entrega-puntu ezberdinetan salgaiak banatzeko behar zehatz batzuk kontuan izanik, kargatzeko, entregatzeko eta jasotzeko denborak eta ordutegiak antolatzeak eskema bat egitea, zamalanetarako itxarote-denborak minimizatzeak gomendioak ezarriz.
- EI3.3 Zirkulazioari, trafikoari eta salgaien zamalanei buruzko udal araudia identifikatzea, salgaien banaketa eraginkorrari eragiten diona edozein hiritan.
- EI3.4 Bide espezifikoak planifikatzeko aplikazio informatikoak erabiltzea, aurrez ezarritako helburuak eta entregaren kalitatea eta puntualtasuna errespetatuz .
- EI3.5 Bideak prestatzeko oinarritzko datu-basea osatzen duten elementuak deskribatzea:
- Eremu zehatz bateko bide-sarea eta errepede-sarea.
 - Entregatzeko eta jasotzeko puntuak non dauden zehaztea.
 - Udal araudia eta bideak prestatzeari eragiten dion trafikoari buruzko informazioa.
 - Ibilgailuak eta garraio- eta banaketa-zerbitzuen hornitzaileak eta/edo libre dauden langileak.
- EI3.6 Behar bezala zehaztutako banaketa-kasu bate kontuan hartuta (eremuaren xehetasunak, entregatzeko eta jasotzeko puntuak, entrega-ordutegiak, erabil daitezkeen ibilgailu-motak eta -kopuruak, banaketa- eta jasotze-tarifak), eta, behar izanez gero, bideak kudeatzeko aplikazio informatiko bat erabiliz:
- Banatzeko eta jasotzeko bideak prestatzea.
 - Langileei bideak eta erabilgarri dauden ibilgailuak esleitzea.
 - Kargatu eta bidea hasteko ordena eta ordutegia zehaztea.
 - Entrega-puntu bakoitzerako entrega- eta banaketa-denborak eta -ordutegiak zehaztea, lana antolatzeak aplikazioak erabiliz.
 - Gertakari zehatz baten aurrean (zirkulazio-bide bat ixtea, matxura, ibilgailu baten istripua, eguraldi txarra, etab.) erabili beharreko plan alternatiboa edo larrialdi-plana prestatzea.
- A4: Garraiolari, banatzaile edo azken banatzaile autonomoak kontratatzean negoziatzea daitezkeen kondizio eta elementuak zehaztea.
- EI4.1 Garraio-zerbitzua kontratatzeak behar diren elementuak eta araudi erregulatuak azaltzea, baita kontratuen printzipio orokorrak, oro har.
- EI4.2 Garraioaren alorreko kontratuak eta lankidetzak-protokoloak zuzen idaztea, gutxienez bi garraio-operazioen kontratuetako klausularik ohikoenak aztertuz.
- EI4.3 Banaketa-enpresetako garraiolarietara negoziatu beharreko tarifen oinarritzko kontzeptu nagusiak identifikatzea.
- EI4.4 Sektorearen bilakaeraren arabera merkatu-tarifak ezagutzeko informazio-iturriak identifikatzea.
- EI4.5 Garraio-zerbitzuen tarifak eta prezioak igoarazten dituzten aldagaiak ezagutzeko, une zehatz bateko egoera aurreikusiz.
- EI4.6 Banatzaileak, azken banatzaileak edo, oro har, garraiolariak kontratatzean gehien erabiltzen diren merkaturatze-kanalak deskribatzea, kontratazio-motaren arabera: jarraitua edo noizbehinkakoa, kontratuzkoa edo hitzekoa, etab.
- EI4.7 Entrega edo jasotzea eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, idatziz edo hitzez banatzailearekin edo azken banatzailearekin adostu behar diren elementuak deskribatzea.
- EI4.8 Adostutako kondizioak bete ezean, kausaren arabera alderdiek dituzten eginbehar eta erantzukizunak, konponbideak eta garraioaren arbitraje-prozedura deskribatzea.
- A5: Banaketa kapilarreko sistema baten gertakariak eta erreklamazioak aztertzea, eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko neurriak zehaztea.
- EI5.1 Salgaien banaketaren esparruko arrisku-egoera ohikoenak identifikatzea, eta horien arabera jardura teknika orokorrak ezartzea.
- EI5.2 Gidariei eta ibilgailuei loturiko osasun- eta ingurumen-kalteak sailkatzea, ondorio eta arrisku-faktore kalte-sortzaile ohikoenen arabera.
- EI5.3 Laneko segurtasunaren eta osasunaren prebentzioaren alorreko helburu neurgarriak identifikatzea, saiatur, batetik, errealistak eta egingarriak izan daitezela, bestetik, ongizatearen alderdi fisiko, moral eta sozialean ikuspuntu orokor bat bultzatu dezatela lanean, eta, azkenik, enpresan prebentzioaren kultura eta diskriminazio ezarena zabaltzen eta ezartzen lagun dezatela.
- EI5.4 Istripua edo ezbeharra gertatuz gero jarraitu beharreko jardura-neurriak azaltzea, beharrezkoak diren segurtasun-arauei eta lehen laguntzako neurriei jarraikiz.
- EI5.5 Lan-ingurunean sute txikiak gertatuz gero hartu beharreko segurtasun-neurriak eta babes-baliabideak deskribatzea, laneko arriskuen prebentzioaren alorreko legediak adierazitako eskakizunak kontuan hartuz.

Edukiak

1. Banaketa eta kapilaritatea errepide bidezko garraioan

- Salgaien banaketa kapilarraren definizioa eta ezaugarri espezifikoak.
- Antolatu, kudeatu eta kontrolatzeko sistemak salgaien banaketa kapilarrean.
- Salgaien banaketa kapilarreko enpresa edo saila.
- Funtzioak, ezaugarriak eta antolamendua.
- Salgaien banaketari aplikatu beharreko administrazio-araudia, autonomikoa eta tokikoa.

2. Banaketa kapilarraren kudeaketa operatiboa

- Oinarrizko kontzeptuak: kostua, gastua, ordainketa, inbertsioa eta ustiapen-funtsa.
- Salgaien banaketako kostuen azterketa.
 - Amortizazioak.
 - Zuzeneko eta zeharkako kostuak.
 - Kostu finko eta aldakorak.
- Kostuak kalkulatzeko aplikazio informatikoak.
- Garraioaren alorreko tarifak edo prezioak zehaztea.

3. Salgaien banaketarako ibilgailuen sailkapena

- Ibilgailu-motak eta ezaugarri teknikoak.
- Masei eta dimentsioei buruzko araudia.
- Ibilgailuen homologazioa eta matrikulazioa.
- Gidariari, ibilgailuari eta salgaiei buruzko dokumentuak.
- Ibilgailuen bereizgarriak, ekipoak eta mantentze-lanak.
- Zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko araudi erregulatuak, ondoko hauei aplikatu beharrekoak:
 - Salgai arriskutsuak
 - Salgai galkorrak
 - Garraio bereziak
- Zabalantzarako baliabideak

4. Kargak planifikatzea eta banaketa-bideak programatzea

- Kargen plangintzaren definizioa eta ezaugarriak banaketaren alorrean.
- Garraio-bideak programatzea
 - Metodoak
 - Informazio-iturriak
 - Denboraren eta bideen esleipena
 - Bide-orriak, ibilbideak eta ordutegiak: deskribapena eta ezaugarriak
 - Zabalantze, banaketari eta garraioari buruzko udal araudi eta murrizketak
 - Gidaldiari eta atsedenaldeei buruzko araudia Takografoa
- Kargak planifikatzeko aplikazio informatikoak.
- Laneko segurtasuna eta osasuna salgaien antolamenduan eta banaketa kapilarrean.

5. Salgaien garraio kapilarraren kontratazioa

- Garraio-kontratuari aplikatu beharreko merkataritzako araudia.
- Salgaien garraioaren kontratua: definizioa, ezaugarriak, erregulazioa, elementu pertsonalak, errealak eta formalak.
- Salgaien garraioaren kontratuaren edukia: alde guztien betebeharrak.
- Erantzukizunak. Garraiolariaren erantzukizunaren muga.
- Erreklamazioak. Garraioaren Arbitraje Batzordeak.
- Garraio-operadoreen bidezko kontratazioa.
- Aseguruaren kontratua eta lurreko garraioaren aseguruak: motak, estaldurak eta kalte-ordainak.
- Salgaien banaketa kapilarraren ikuskapena eta zigor-erregimena.

6. Zerbitzuaren kalitatea eta bezeroarentzako arreta

- Zerbitzuaren kalitatearen jarraibideak, bezeroarentzako arreta eta bezeroaren gogobetetzea.
- Kexen eta erreklamazioen tratamendua.
- Mota askotako gertakariak eragin ditzaketen faktoreak.
- Enpresaren kanpo- eta barne-irtenbideak.
- Ezbeharrak erreklamatzeko prozedura.

- Aseguru-polizak estalitako erantzukizuna eta kalte-ordainak.
- Ingurumena salgaien antolamenduan eta banaketa kapilarrean. Hondakinen tratamendua eta kudeaketa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urte baino gehiagokoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Garraioaren eta banaketaren antolamendua